MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO 2022. URTEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

2022ko martxoaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2022. urterako diru laguntzen honako deialdia onetsi du:

| | |
|---|---|
| XEDEA | MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN EUSKARAZ IPINITAKO ERROTULUAK DIRUZ LAGUNTZEA |
| DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | 1.600 € |
| ESKATZAILEAK | Onuradunak izango dira 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko diru laguntzen oinarri zehatzetan azaltzen direnak. |
| ESKARIA EGITEKO EPEA | Deialdia BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik, 2022ko abenduaren 15era arte. |
| ESKARIA EGITEKO LEKUA | -Bermeoko Udaleko Egoitza Elektronikoan: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/index.php?id=erregistro_telematikoa -39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako bestelako lekuetan. |
| EMANGO DEN GEHIENEKO KOPURUA | 300 € |
| OINARRI ARAUTZAILEAK | 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko diru laguntzen oinarri zehatzak |
| EBAZPENAREN EPEA | Jasotako eskariak heldu ahala ebatziko dira, gehienez hilabeteko epean. |
| JUSTIFIKAZIOEN EPEA | Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan justifikatutakoaren arabera ebazten da diru laguntza. |

| | |
|---|---|
| HELBURUAK<br>BALORAZIO IRIZPIDEAK<br>PROZEDURA | Horiei buruzko argibideak 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko diru laguntzen oinarri zehatzetan azalduta daude. |
| AURKEZTU BEHARREKO<br>DOKUMENTAZIOA | Eskaera egiteko:<br>- Dirulaguntza eskatzeko orria<br>- Errotuluaren zirriborroa aurreikusitako testuarekin, errotulua jarri aurretik<br>Errotulua ipini ostean:<br>- Jatorrizko faktura<br>- Ipinitako errotuluaren argazkia |